

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAD-EKO BAZKIDEEN BALDINTZA OROKORRAK

1. Artikulua. “Bazkideak”

- 1.1. REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADeko bazkideak dira (aurrerantzean “REALA” edo “Kluba”) Reale Arenan aldizka sartzeko eta izateko aukera kontratatzen dutenak, Klubak antolatzen dituen edo parte hartzen duen partidetarako. Juridikoki “abonatu” terminoa dagokie, baina dokumentu honetan, termino horren ordez “**bazkide**” izena emango zaie. Dokumentu honetan, “bazkide” terminoa ez da Sozietatearen akziodunak aipatzeko erabiltzen. REALAk onartzeko eskubidea beretzat erreserbatzen du.
- 1.2. REALeko bazkideak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke, eta honela deituko dira:
 - a. **Bat, bi, hiru, lau, bost, sei:** zero urtetik sei urtera;
 - b. **Infantila:** zazpi urtetik hamalau urtera;
 - c. **Gaztea:** hamabost urtetik hogeita bost urtera;
 - d. **Aurrera:** hogeita sei urtetik hogeita bederatzi urtera;
 - e. **Txuri-urdina:** hogeita hamar urtetik aurrera, eta pertsona juridikoentzat;
 - f. **A-Gunea:** %66 baino urritasun psikikoa duten pertsonak (Foru Aldundiak emandako ziurtagiri egokiarekin egiaztatu beharko dute).
 - g. **Betikoa:** 65 urtetik gorako pertsonak, azken 25 urteetan REALeko bazkideak izan direnak.
- 1.3. Dagokion kategoria kalkulatzeko, kontuan hartuko da bazkideak kasuan kasuko urteko urtarrilaren 1ean duen adina. Adibidez, 2019ko urtarrilaren 1ean bazkide batek hogeita bost urte baditu, 2019ko urtarrilaren 2an hogeita sei urte bete arren 2019ko urte natural osoan Gaztea kategorian egongo da.
- 1.4. “Bat, bi, hiru, lau, bost, sei” kategoria zero eta sei urte arteko haurrei zuzenduta dago, hirugarren gradura arteko ahaidetasuna duen senideren bat badute REALEKO bazkide. Kategoria horretan bi aukera daude:

- a. Eserlekuarekin: txartelak adingabea (zero eta sei urte bitarteko haurra) Reale Arenara sartzeko titulu gisa balio du, esleitutako eserlekuarekin.
- b. Eserlekurik gabe: txartelak adingabea (zero eta sei urte bitarteko haurra) Reale Arenara sartzeko titulu gisa baino ez du balio; ez du eserlekurik esleituta. Kasu horretan, haurrek gurasoen altzoan eserita egon beharko dute.

2. Artikulua. Bazkideen eskubideak

Bazkideek eskubide hauek edukiko dituzte:

- 2.1. **Klubak antolatzen dituen kirol ekitaldietara joatea**, Reale Arenan erabilgarri dauden lekuak kontuan hartuta Klubak une bakoitzean bazkideentzat jartzen dituen lekuen arabera, eta Klubak Zubietako Kirol Instalazioetan antolatzen dituen kirol ekitaldietara joatea.
- 2.2. **Klubak antolatu ez baina berak parte hartzen ditueneko lehia ofizialetako kirol ekitaldietara joatea**, Klubari ematen zaizkion eserlekuak erabiliz, bai Reale Arenan bai Zubietako Instalazioetan. Eserleku horietan interesa duten bazkideen kopurua eserleku kopurua baino handiagoa bada, Administrazio Kontseiluak zehaztuko ditu banaketarako ezarri beharreko irizpideak.
- 2.3. **Bazkide izaerari eta Klubarekiko harremanei** eragiten dien edozein gairi buruz dagokion **informazioa** indibidualki **jasotzea**.
- 2.4. Bazkideak eserlekua aldatzeko aukera dauka, hainbat egunez, eta urteko berriztapena amaitu denean baino ez, eta bazkideak lehentasuna izango du libre geratzen diren eserleku berrietatik edozein aukeratzeko.
- 2.5. **Ohore, duintasun eta intimitate eskubideak** errespetatuak izatea, azken horren barruan bere espedientean dauden bere datu pertsonalak publiko edo hirugarrenen aurrean ez zabaltzeko eskubidea.
- 2.6. REALeko bazkide txartelak eskubidea ematen du Klubaren dendetako deskontuez baliatzeko, baita Klubak egiten dituen **fidelizazio ekitaldietan** parte hartzeko ere. Halaber, REALaren museoko bisitetan ere prezio bereziak izango ditu.

- 2.7. Fideltasuna aitortzea: REALAK bazkide moduan jarraian berrogeita hamar urteko antzintasuna betetzen duten bazkideei aitortza adierazten die, Klubaren urrezko intsignia jarritz.
- 2.8. Realzale guztiei zerbitzua emateko helburuarekin, eta bezeroei emandako arreta egunero hobetzeko konpromisoarekin, profesional talde bat prest dago behar den edozein gai edo gestiori buruz pertsonalki arreta emateko eta informatzeko, REALaren bulegoetan: Reale Arena Estadioa - Anoeta pasealekua 1. 20014 Donostia/San Sebastian. Ordutegia web orrian kontsultatu daiteke (www.realsociedad.eus)

REALaren bazkideen Arreta Zerbitzuak arreta pertsonalizatua ematen die Klubaren bazkide eta jarraitzaile guztiei, posta elektronikoko bidez zein telefono zenbaki bakar batean.

Telefonoa: 943 462 833

e-mail realsoc@realsociedad.eus

3. Artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bazkideek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- 3.1. Esaterako, UEFAk edo lehiak antolatzen dituzten beste erakunde batzuek exijitzen dituzten baldintzen ondorioz, edo, besteak bestea, estadioa zaharberitzearen ondorioz, lekuetan egin beharreko aldaketak onartzeko betebeharra hartzen dute beren gain.
- 3.2. **Baldintza Orokorrak betetzea**, baita etorkizunean **Administrazio Kontseiluak** aitortzen zaizkion eskumenak baliatuz **erabaki ditzakeen** horien aldaketak ere.
- 3.3. **Bazkide kuotari dagozkion ordainketak egitea**, kontratatutako **ekarpen arruntak zein markatutako bereziak egitea** (adibidez, Akziodunen Batzar Nagusiak edota Administrazio Kontseiluak erabakitako “Klubaren Laguntzarako Egun Erdia”, “Europa bonua”, etab.); hori bazkidearen izaeran sartuko da, eta dokumentu honetan adierazitako eskubideez baliatzeko aukera ematen du.

- 3.4. Bazkideak ekintzak edo omisioak egitearen ondorioz, behar bezala egiaztatuta badaude, **sozietatearen ondarean kalte edo galerak eragin badira**, Klubari puntualki **ordaintzea**.
- 3.5. **Posta arrunteko eta elektronikoko helbide bat edo beste datu batzuk** ematea **Klubaren jakinarazpenak helarazteko**, eta helbide aldaketak behar bezala jakinaraztea. REALAk ez du bere gain hartuko bazkideak datu horiek ez eguneratzeagatik eragin daitekeen edozein gertaera, horien artean egonik bazkidearen izaera edo eserlekua galtzea, ordainagiriak itzultzea, korrespondentzia galtzea, kuotak berritzea, etab.
- 3.6. Kreditu entitate baten **banku kontuaren** zenbakia ematea, bazkidearen kuotak edo ekarpenak kargatu ahal izateko.
- 3.7. Bazkideek onartzen dute partidaren beraren inguruko guztia (Estadioaren edo Zubietako Instalazioen barruan zein inguruetan, partidaren aurretik eta ondoren gertatzen den guztia) eta atak zabalik egiten diren entrenamendu saioak ikuskizun publikoak direla; hori horrela, baimena ematen dio REALari bere ahotsa edota irudia erabiltzeko telebistako edo irratiko zuzeneko emanaldietan zein aurretik grabatutakoetan, bideoetan, argazkietan edo egungo edo etorkizuneko beste edozein bide edo euskarriren batean, berea izan zein hirugarrenena izan, horregatik inolako kontraprestaziorik eduki gabe. Ildo horretan, berariazko baimena ematen dio REALari partidak (partidaren aurretik, partidaren bertan edo ondoren, eta instalazioen barruan zein inguruetan) eta entrenamenduak direla-eta hartutako irudiak (argazkiak edo bideoak) erabiltzeko, bere jardueren sustapenerako, bai web orrian, bai bere sare sozialetan.
- 3.8. Bazkidearen izaerak ematen dizkion eskubide guztiak **erakundearen irudiak, izen onak, prestigioak eta proiektio publikoak** merezi duten **duintasunarekin eta errespetuarekin** erabiltzea, eta, Klubaren jardueretan parte hartzeko eskubideei dagokienez, eta **adierazpen librerako eskubideei dagokienez**, gainerako **bazkide, zuzendari, kirolari, teknikari eta enplegatuek edo Klubari lotutako beste edozein pertsonak** merezi duten **ohore, duintasun eta intimitatea errespetatzea**.

4. Artikulua. Bazkide izaera eskuratzea

Administrazio Kontseiluak bazkideak hartzeko baldintzak ezartzeko edo baldintza horiek aldatzeko ahalmena dauka, bai eta bazkide berriak egitea behin- behinean eteteko ere.

“Klubak sarrera ukatzeko duen eskubidearen esparruan, eta Administrazio Kontseiluak eta erakundeak berak kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurka dituen konpromisoekin bat eginda, abonatu bat kontratatzeko, edo indarrean dagoen abonatu izaera mantentzeko, interesduna ez da egoera hauetan egongo:

- a. azken bi (2) urteetan zigortua edo kondenatua izatea kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziari lotutako jokabideengatik. Zehazki, istilu, liskar, borroka, desordena publiko, kantu, debekatutako objektu edo objektu arriskutsu, mezu, logotipo eta abarreatik kirol esparru edo inguruetan, garraibideetan, sare sozialetan edo beste edozein leku edo bitartekotan, izan etxeko zale moduan zein bisitari moduan.
- b. zigor prozedura edo prozedura penal baten parte izatea horrelako jokabideengatik; edo
- c. Klubak, Segurtasunaren koordinatzaileak, Segurtasunaren zuzendariak, Segurtasun pribatuak edo Segurtasun indarrek gaiari buruz adierazitako jarraibideak, kirol esparruaren Barne Erregelamendua edo LaLigako abonatuak eta sarrerak saltzeko Erregelamendua nabarmen edo behin eta berriz ez betetzea, Administrazio Kontseiluak aurreko egoeraren bat gertatu den aztertu ahal izango du bost (5) egun naturaleko epean, bazkide izaera ematea edo ez ematea erabakitzeko”

4.1.

4.2 Bazkide izaeraren eskaera interesdunaren eskari presentzialaz egingo da. Edonola ere, derrigorrezkoa izango da NANA aurkeztea, edo pasaporte, edo Familia Liburua, adingabeei bazkide moduan alta eman behar bazaie.

4.3 Eskaria Klubeko administrazioak emango dituen inprimakien bitartez egingo da, dagokion formularioan agertzen diren datu pertsonalekin, eta horien artean agertuko dira kobrantzak kreditu entitate bateko kontu korrontean helbideratzea eta posta elektronikoko helbidea.

4.4 **Bazkideak onartzea bertan behera utzi** bada, Administrazio Kontseiluak sartzeko **eskarien behin-behineko erregistro** bat sortzea erabaki ahal izango du, egiten diren eskariak antzinasunaren arabera hurrenkeran jartzeko. Erregistro horretan izena emandakoek Klubean sartzeko lehentasunezko eskubidea izango dute berriro bazkide berriak onartzen hasten denean. Administrazio Kontseiluak aipatu Erregistroan izena emateko baldintzak

arautuko ditu.

5. Artikulua. Betebeharrak eta debekuak Klubaren instalazioetan sartu, erabili eta egoteari dagokienez.

- 5.1 Bazkideak behartuta daude araudi sektorial aplikagarria betetzera eta errespetatzera:
- a. 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa
 - b. 203/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, Kirolean egon daitekeen bortizkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egiteko Araudia onetsi duena
 - c. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena;
 - d. [Kirol Eremuaren Barne Araudia](#) – instalazioetan sartzeko eta bertan egoteko araudia
 - e. Ordainketarako baldintza orokorrak hauek.

- 5.2 Aplikagarria den araudi sektoriala betetzea alde batera utzita, bazkideak behartuta daude preskripzio hauek errespetatzera, batzuk aipatzearen eta ez hauek bakarrik:
- a. bere txartelean eta bazkide kuotan **esleitu zaion eserleku zehatzean esertzea**, eta partidari zehar horretan egotea, ebakuazio bideetan jarri gabe, segurtasun arrazoiengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera.
 - b. edozein motatako edozein marketin ekintza, baita marketin ezkutuko ekintzak ere. REALAk eskubidea erreserbatzen du arau honen aurkako ekintzak egiten dituzten pertsona edo erakundeen kontra egokitzen jotzen dituen ekintzak abiarazteko.
 - c. estadioan txartelaren eramaileari dagokion baino kategoriatxikiagoko txartel batekin sartzeari. Hori gertatuz gero, Klubak debeku hori hausten duten pertsona guztiei txartela **kenduko die**, titularrak bere egoera erregularizatzen duen arte. **Erregularizatzeko**, kendutako txartelaren bazkide kuotaren eta txartela kendu zaion pertsonaren kategoriatxikiagoko kuotaren arteko diferentziala ordaindu beharko da.
 - d. titulua (txartela edo sarrerak) kostu handiarekin lagatzea, edozein prezioetan, Klubak antolatzen edo berak parte hartzen duen kirol ekitaldietan sartzeko aukera emateko.
 - e. txartela manipulatzeari eta faltsutzeari, edozein eratan izanda ere.
 - f. Klubari zigor exekutiboa ekarriko dioten portaerak izatea, zigor ekonomikoa edo beste edozein motatakoa izan;
 - g. Legearen eta bazkidearen termino eta baldintza orokorren aurkako edozein ekintza edo omisio egitea:
 - engainua edo asmo txarra dagoenean; edo
 - transzendentzia publiko handia badu; ulerturik transzendentzia hori gertatzen dela ekintzak komunikabideetan zabalkundea badu, eta eragin orokorra badu; edo
 - Klubari edo Klubeko beste bazkide batzuei, jokalariei, teknikariei edo enplegatuei kalte material edo moral handia egiten bazaie;
 - h. liskar, borroka edo desordena publikoetan parte hartzea Klubaren instalazio edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida bat jokatzen duen esparruetan, baita horien inguruko lekuetan eta dagozkien hirietan, pertsonen edo ondasunen kalte edo arrisku larria eragiten badiete;
 - i. Klubaren altzari edo instalazio edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida bat jokatzen duen lekuko altzarietan edo esparruetan nahita kalteak eragitea, baita dagozkion hirietako hiri altzarietan ere. Hurrengo

- artikuluaren aurreikusitako zigorrak gorabehera, Klubaren altzari edo instalazioetan eragindako kalteak arau hausleak ordainduko ditu.
- j. Partidak jokatzeko ari diren bitartean pasabideetan eta eskaileretan zutik egotea.
 - k. ekitaldiaren edozein azalpen, ohar, irudi, audio, datu, estatistika edo beste era bateko erreproduzio transmititu, banatu edo saltzea (edo horretan laguntzea), erabilera pertsonalerako eta pribaturako ez bada, behintzat.
- 5.3 Klubak antolatutako edo berak parte hartzen dueneko kirol ekitaldietan sartu ahal izateko txartela edo titulua uzten bada, ulertuko da txartela edo titulua uzten duen bazkidea, bere txartela edo titulua uzteko ezinbesteko laguntzailea den heinean, hartzaileak egin ditzakeen arau hausteen erantzule solidarioa izango dela, haren erantzukizun pertsonalak gorabehera.
- 5.4 Partida bat dela-eta bazkide batek REALen instalazioetan edo haien inguruetan edo REALak bisitari gisa jokatzeko duen beste estadio batean edo bertara joateko egindako bidaiari ez-betetze bat egiten badu, REALak kasu bakoitzean aplikatu beharreko zigorra proposatuko du (bazkide izaera etetea edo galtzea).

6. Artikulua. Bazkidearen baldintzak ez betetzearen ondorioak

- 6.1. Jokaera jakin batzuetarako bereziki aurreikusitako ondorioen kalterik gabe, eta gaiari eskumena duen Administrazio Publikoak abiaraz ditzakeen prozeduren kalterik gabe, Klubak bazkidearen txartela kentzea erabakiko du eta horren ondorioz bazkidearen izaera denbora batez etetea edo izaera hori kentzea, modu ezeztazinean, kasuaren inguruabarren arabera eta egindako arau haustearen ezaugarrien arabera.
- 6.2. Bazkidearen izaera modu indibidualean eta **Klubak erabakita** baino ezingo da eten edo behin betiko galdu, estadioan sartu, erabili eta egoteari lotutako betebeharrak eta debekuak ez betetzearen suposamenduetan, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 3. artikuluan xedatutako betebeharren arabera.
- 6.3. Bazkidearen izaera etetea gehieneko epea bi urte izango da, eta horrek esan nahi du etenaldiak irauten duen denbora guztian ezingo dela txartela berritu.
- 6.4. Etenaldiak irauten duen bitartean, bazkideak ezingo ditu 2. artikulua aitortzen dizkion eskubideak erabili.

- 6.5. Txartelak manipulatu edo faltsifikatzeari dagokionez, txartela kendu eta bazkide izaera eteteaz edo behin betiko galtzeaz gain, Klubak gaiari buruz egokitzen dituen legezko neurriak hartuko ditu txartelaren titularraren eta txartela kendu zenean hura zeukan pertsonaren aurka.
- 6.6. Edozein neurri ezartzeak ez du arau hauslea salbuetsiko Klubari egindako kalteak ordaintzetik edo kalte-ordaina ematetik.

7. Artikulua. Bazkide izaera galtzea

- 7.1. Bazkide izaera modu indibidualean eta arrazoi hauengatik baino ezingo da galdu:
- a. bazkidearen **berariazko erabakiz**, Klubari modu frogagarrian adierazita;
 - b. bazkidearen **heriotzagatik**;
 - c. Pertsona juridikoa **azkentzeagatik**;
 - d. **Klubaren erabakiz**, instalazioetan sartu, erabili eta egoteari lotutako betebeharrak eta debekuak ez betetzearen suposamenduetan, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 3. artikuluan xedatutako betebeharren arabera;
 - e. zor den edozein zenbateko **ez ordaintzegatik**: bazkidearen ohiko edo aldizkako kuota.
- 7.2. Eszenatoki bakoitzean, bazkide izaera honela galduko da:
- a. 7.1.a atalean aurreikusitako kasuetan, galera automatikoki gauzatuko da hurrengo ordainketa sortu den unetik bertatik. REALean bazkide moduan **baja emateko**, txartelaren titularrak edo bere legezko ordezkariak idatziz eskatu beharko du.
 - b. 7.1.b atalari dagokionez (bazkidearen heriotza), bazkide izaera heriotza gertatzen den egunean gertatuko da. Klubak kasuan kasuko bazkidearen heriotzaren berri eduki bezain laster bideratuko du bazkidearen baja. Senideek bazkidearen heriotzaren berri eman beharko diote Klubari, aukera bi hauek kontuan hartuta:

- 1) Hildako pertsonari baja ematea eta beste pertsona bati alta ematea; edo
 - 2) Hildako pertsonaren bazkide txartelari baja ematea, eta kasu horretan Klubak ordaindutako kuotaren zati proportzionala bueltatuko die. Horretarako, heriotzaren egiaztagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.
- c. 7.1.c atalari dagokionez (pertsona juridikoa azkentzea), pertsona juridikoaren azkentzea dagokien erregistroetan jasotzen den egunean bertan galduko da bazkide izaera. Klubak pertsona juridikoaren azkentzearen berri eduki bezain laster bideratuko du baja, eta pertsona juridikoaren azkentzea modu frogagarrian jakinaraziko da.
- d. 7.1.d atalean aurreikusitako kasuan, Klubak erabakiko du bazkide izaera etetea edo kentzea, dagokion diziplinarako barne araudiaren arabera.
- e. Azken atalean, 7.1.e atalean, aurreikusitako kasuari dagokionez, ez ordaintzearen ondorioak honako hauek dira:
- Kuota arrunta edo aldizkakoa ez ordaintzea: egoera horrek eragingo du ordaintzen ez denetik REALAk Reale Arenan jokatzeko duen lehenengo partidan “pasatzeko ukoa” gertatzea, eta sartzeko dagokion atean jakinaraziko zaio Klubaren bulegoetara jo behar duela gertaera aztertze eta egoera erregularizatzeko. Reale Arenan jokatzeko den REALAren hurrengo partidan (ordaintzen ez denetik bigarrena) egoerak erregularizatu gabe jarraitzen badu, estadioan sartzeko atean bazkideari txartela kenduko zaio. Ondoren bazkideari baja emango zaio, eta egoera hori behar bezala jakinaraziko zaio.
 - Beste edozein kontzeptu osagarri ez ordaintzea. Beste edozein kontzeptu osagarri ez ordaintzeak dagokion ekitaldirako estadioan sartu ezina eragingo du.

Klubak kontzeptu osagarriak ordaindu gabe daudela ekitaldia gertatu eta gero jakiten badu, Kluba bazkidearekin harremanetan jarriko da, gertaera jakinarazteko. Gainera, bazkidearen kuota arrunta edo aldizkakoa ordaintzen ez denean bezala jokatu da, estadioan sartzeari dagokionez

aurreko suposamenduan aurreikusi den bezala. Egoera erregularizatu gabe jarraitzen badu, ordaindu gabeko zenbatekoa kuota arruntaren edo aldizkakoaren hurrengo kobrantzan sartuko da.

Donostia/San Sebastian, 2018ko abuztua